



PORTUGALETEKO GIZARTE ZERBITZUEN KONTSEILUAREN ARAUDIA

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak sorburu du Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen maiatzaren 20ko 6/1982 Legean. Izan ere, kontsultarako organoa dugu bai gizarte-zerbitzuen arloan diharduten entitateak bai zerbitzuen erabiltzaileak bere baitan hartzen baititu. Portugaleteko Udalbatzak 1990eko otsailaren 22an Udalaren Gizarte Ongizatearen Kontseilua eratzea onetsi zuen.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 oraingo legeak Autonomia Lege hura ordeztu zuen. Beraren 49. artikulua gizarte-zerbitzuen tokiko batzordeak eratzea dakar. Halaber, aholkularitza emateko eta parte-hartzeko organoak ere eratuko dira. Orobat, gizarte-zerbitzuen arloan diharduten gizarte-eragileen parte-hartzea bermaturik egongo dira eta andre eta gizonen arteko ordezkartza orekatua ere beharrezkoa izango da. Hura dela eta, araubide berria beharrezkotzat jotzen da.

Halaber, ikusi dugu organo horiek toki-mailan Batzorde Sektorialak direla Antolakuntza- eta Jarduera-araudiaren 130. artikuluari eta hurrengoei jarraiki. Izan ere, Kontseilu Osoari dagozkio haien osaera eta antolaketa. Bestetik, Udalkide bat izango da presidentea, alkateak askatasun osoz izendaturik.

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak xede du Batzorde erabat aholkularia izatea eta horretaz gain, toki bat eskaintzea udalaren gizarte-zerbitzuei dagokienez, gizarte-eragileek eta dinamizatzaileek beren ekarriak eta proposamenak egin ditzaten. Era berean, udalaren gizarte-ekintzaren arloarekiko koordinazioa hobetzea ere helburu du.

1. artikulua.– Xedea

Araudiak helburu du Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren osaketa eta eginkizunak arautzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 49.artikulua dioena indarrean jar dadin eta bete dadin.

2. artikulua.– Atxikipena eta osaera

1.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilua gizarte-zerbitzuen eskumena duen sailari dago atxikia eta egoitza Udaletxean du.

Hala eta guztiz ere, Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak bilkurak Portugaleteko edozein tokitan egin ahalko ditu.

2.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak ondoko organoak ditu:

a) Organo kolegiatuak:

- Kontseilu Osoa.
- Batzorde sektorialak

b) Pertsona bakarreko organoak:

- Presidentea.
- Presidenteordea.
- Idazkaria.

3.–Aurreko atalak dakarrenari kalterik egin gabe, Kontseilu Osoak eta Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren Batzorde Sektorialek hala erabakiz gero, arloan eskarmentu eta ezagutza handikoak izateagatik, Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluarentzat baliagarri izan daitezkeen pertsona, erakunde eta elkarte oro,



bilkuretara bertaratu ahalko dira jarraian zein aldizka. Ordezkeri eta herritar horiek bozkatzeko eskubidea izango dute parte hartzen duten bileretan.

3. artikulua.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren eginkizunak

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak ondoko eginkizunak ditu:

1. Gizarte Ongizatearen Batzordeari aholku eman eta era berean, helarazi gizarte zerbitzuak oro har planifikatzeko jarduketa-proposamenak, gizartearen eskariak zein diren aztertuta.
2. Gizarte zerbitzuetarako funtsa-banaketari dagozkion irizpideen berri eman.
3. Gizarte zerbitzuen kudeaketa aztertu.
4. Bere ekimenez edo Udalaren Gizarte Ongizatearen Batzordeak eskaturik, irizpenak, azter-lanak edo txostenak egin.
5. Gizarte ongizatearen arloko eragileen iradokizunak, informazioa eta proposamenak jaso.
6. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen barnean dagoen eginkizun oro edo indarrean dagoen araudiak esleitzen diezaiokeena.

4. artikulua.– Kontseilu Osoaren osaketa

1.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoan honako hauek daude ordezkatuak:

- a) Udala
- b) Erabiltzaileen elkarteak.
- c) Sindikatuak
- d) Boluntariotzako elkarteak.

2.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoaren kideak hauek izango dira:

a) Administrazio publikoaren aldetik:

- Gizarte zerbitzuen ardura duen sailaren zinegotzia. Presidente-lanak egingo ditu.
- Gizarte zerbitzuen zuzendaria. Idazkari-lanak egingo ditu.
- Kide bat, gizarte ongizatearen ardura duen udal sailaren ordezkaritzan.
- Aukera Berdintasunaren Teknikaria.
- Kide bat, herritarren parte hartzearen ardura duen udal sailaren ordezkaritzan.
- Kide bat, osasunaren ardura duen udal sailaren ordezkaritzan.
- Kide bat, hezkuntzaren ardura duen udal sailaren ordezkaritzan.
- Kide bat, etxebizitzaren ardura duen udal sailaren ordezkaritzan.
- Kide bat, kulturaren ardura duen udal sailaren ordezkaritzan.
- Gizarte Ekintzarako Batzorde Informatzaile Iraunkorra osatzen duten alderdi politikoen kide bana. Batzordearen presidenteordetza duenari Kontseiluaren presidenteordetza ere dagokio.

b) Gizarte zerbitzuen elkartearen aldetik:

- Kide bat, Portugaleteko Nagusien Elkartearen ordezkaritzan.
- Kide bi, Portugaleteko ikastetxeetako guraso-elkartearen ordezkaritzan. Kide bat ikastetxe publikoaren ordezkaritzan eta beste bat, itunpeko ikastetxearen ordezkaritzan.
- Kide bat, Portugaleten haurren arloan diharduten gizarte-ekintzarako elkartearen ordezkaritzan.



- Bi kide, udalerriko gazte-elkarteen ordezkartizan.
- Kide bat, udalerrian gizon eta andreen arteko berdintasunaren alde diharduten gizarte-ekintzarako elkarteen ordezkartizan.
- Kide bat, desgaitasundun pertsonekin diharduten gizarte-ekintzarako elkarteen ordezkartizan.
- Kide bat, Portugaleten etorkinekin diharduten gizarte-ekintzarako elkarteen ordezkartizan.
- Kide bat, gizarteratzearen alde eta gizarte-bazterkeriaren aurka diharduten gizarte-ekintzarako elkarteen ordezkartizan.
- Kide bat, menpeko nagusiekin diharduten gizarte-ekintzarako elkarteen ordezkartizan.
- Udaleko sindikatu erakunde eta konfederazio ordezkartuenetako eta langileria delegatu eta udal enpresa-baztordekideen % 10 baino gehiago lortu dutenetako kide bana.
- Kide bat, Kontseilu Osoak eraturiko Batzorde Sektorial bakoitzeko.
- Kide bat, Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Bizkaiko Elkargo ofizialaren ordezkartizan.
- Kide bat, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren ordezkartizan.

5. artikulua.– Kontseilu Osoaren eskumenak

1.– Kontseilu Osoak Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren eginkizun guztiak onartuko ditu.

2.– Kontseilu Osoak honako gaiei buruz ere akordioak lortu behar ditu:

- a) Kontseilu Osoaren jarduketa-ildo nagusiak epe laburrera zein motzera ezarri behar ditu.
- b) Batzorde Sektorial Iraunkorrak eratu behar ditu eta zein osaera izango duten eta zein diren haien zereginak ere ezarri beharko du.
- c) Erabaki beharko du akordioak argitaratzeari buruz.
- d) Udalbatzaren aurrean, urteko oroit-idazki azalpenezkoa egin, onetsi eta aukeztu ere egin beharko du Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren jarduerari buruz, nahitaez hobetzeko proposamenak ere txertatzen dituelarik.
- e) Aldaketak ere proposatu beharko ditu Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren araudiaz.
- f) Araudiak egitera behartzen duen zeregin oro burutu beharko du.

6. artikulua.– Bilera-deiak

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoa sei hilabeterik behin, gutxienez, bilduko da.

Presidenteak kontseiluaren ohiko bileren deia egingo du eta ezohiko bilera ere deitu ahal du kontseilua osatzen dutenen % 25ek hala eskatuz gero.



7. artikulua.– Kontseilu Osoko kideak hautatu eta izendatu

1.- Alkateak Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoko kideak izendatuko ditu, aldez aurretik proposamena eginda.

2.- Kontseilu Osoko kideak honelaxe izendatuko dira:

a.– Zinegotziek udal sailen ordezkartzan jardungo duten kideak izendatuko dituzte.

b.– Gizarte-zerbitzuetan, sindikatuetan eta profesional arloan diharduten elkarteek beren kideak hautatu eta izendatu ere egingo dituzte. Ondoren, alkateari proposamena egingo diote Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilua eratu baino 20 eguneko aurrerapenaz.

8. artikulua.– Kontseilu Osoko kideen agintaldia.

1.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoko kideen agintaldia lau (4) urtekoa izango da. Nolanahi ere, haiek agintaldia bukatu ondoren ere, berriro izendatuak izan daitezke. Arestian aipaturiko epea bukatuta, Kontseilu Osoko kideek bere eginbeharretan jardungo dute ordezkoen izendapenak berezko ondorioak izan arte.

2.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoko kideen agintaldia amaierara iritsi aurretik, hurrengo arrazoiengatik buka daiteke:

a) Izendapena egin zuen Administrazio publikoak edo gizarte-, sindikatu-, enpresa- edo profesional-elkarteak baliogabetzen badu edo kargu-uztea aurkezten badu.

b) Kontseilu Osoko kideek, euren karguarengatik izendatuta, kargu horri uzten badiote.

c) Kontseilu Osoko presidentearen aurrean uko egitea.

d) Lanerako ezintasun iraunkorra edo heriotza.

e) Justizia edo Administrazioaren ebazpen irmoa zeinek kargu publikoetarako desgaitasuna edo etetea baitakar.

3.– Aurreko atalean aurreikusitako egoeretan, ordezkapenak egingo dira Kontseilu Osoko kide ordezkatuari agintaldia bukatzeko falta zaion aldian egingo dira.

9. artikulua.– Kontseilu Osoko kideen ordezkapenak

1.– Presidentearen oporretan edo gaixorik badago edo bilkuratik azaltzen ez bada, Gizarte Ekintzarako Batzorde Informatzaile Iraunkorreko presidenteordeak haren zeregin guztiak bere gain hartuko ditu.

2.– Administrazio publikoek, gizarte-zerbitzuetako elkarteek, sindikatuak eta profesionalek Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluan ordezkariak ez ezik, beraien ordezkoak ere izendatuko dituzte, ordezkariak ez badaude haien lana ordezte aldera. Administrazioak edo elkarte eskumendunak ordezkoak izendatuko dituzte ordezkariena egiten den une berean, izendatze-sistema bertsuari jarraiki.

10. artikulua.– Kontseilu Osoko kideen eskubideak

1.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoko kideek eskubideak dituzte:

a) Parte hartu behar dute ahoz, bozkatzeko eskubideaz baliatu behar dute eta organu kolegiatuen bilkuretan boto partikularra ere adierazi behar dute. Halaber, botoaren azalpen eta zioak adierazi eta justifikatu ere egin behar dituzte.



- b) Parte hartzen duten organu kolegiatuaren gaiei buruzko informazioa izan behar dute. Era berean, gainerako organu kolegiatuena ere izan behar dute haiek berariaz hala eskatuta.
- c) Parte hartzen duten organu kolegiatuen bilera-dei presakoa eskatu ahal dute.
- d) Ekarpinak eta iradokizunak aurkeztu ahal dituzte gai-zerrendan ager daitezten eta parte hartzen duten organu kolegiatuetan akordioak har ditzaten. Gai zehatz bat lantze aldera ere egin ditzakete ekarriak.
- e) Organu bakoitzari dagokion denbora-aurrerapenaz bilkuren deialdiaren eta gai-zerrendaren berri izan behar dute. Orobat, zerrendan dauden gaien agiri eta informazio oro ere eskuragarri izan behar dute. Aurreko bilkuraren akta ere izan behar dute.
- f) Eskararak eta galderak egin ahal dituzte.

11. artikulua.– Kontseilu Osoko kideen eginkizunak

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilu Osoko kideek eginkizun hauek dituzte:

- a) Organo kolegiatuen bilkuretara bertaratu behar dute baldin eta horietan kide badira. Urtean zehar, justifikaziorik gabe jarraian bi bileratara edo etena eginda, hirutara ez joatea arrazoia izango da Kontseilu Osoak legez aztertzeko ea komeni den proposatzea kidea kargutik kentzea izendatu zuen entitateari.
- b) Jorratutako gaiek hala eskaturik, isiltasunez eta zuhurtasunez jokatzeko, ohoreaz, norberaren eta familiaren intimitateaz eta irudi pertsonalaz batik bat ari garelarik.
- c) Araudi honi eta berau garatzean onetsi daitezkeen ildo eta jarraibideei jarraiki jokatu behar dute.

12. artikulua.– Batzorde Sektorialak

- 1.– Gizarte zerbitzuetan jardunbide osoa eskatzen duten gai jakin batzuk arloka jorratzeko Batzorde Sektorialak eratuko dira Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak adostuta.
- 2.– Kontseilu Osoak hala erabakita, eratzten diren Batzorde Sektorialen osaketa eta funtzioak Kontseilu Osoak berak ezarriko ditu. Nolanahi ere, batzordekideak ere berriak izango dira Batzordearen osaketa berritzeaz batera.
- 3.– Kontseiluko presidentea Batzorde Sektorialean buru izango da edota presidenteak eskuordetzen duena.

13. artikulua.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko Presidentea

- 1.– Gizarte-gaietako zinegotzia Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko Presidentea, Kontseilu Osokoa eta Batzorde Sektorialeakoa ere izango da.
- 2.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko Presidenteak ondoko eskumenak ditu:
 - a) Kontseilu Osoa ordezkatzeko.
 - b) Kontseilu Osoaren jarduketak zuzentzeko.
 - c) Kontseilu Osoaren eta Batzorde Sektorialen bileren buru izango da eta deibilerak ere egin behar ditu. Horretaz gain, bilerak ondo antolatze eta abiarazte aldera ildo orokorrak ezarri ere egin behar ditu. Debateak ere moderatuko ditu.
 - d) Kontseilu Osoko eta Batzorde Sektorialeako bilkuretan gai-ordena aipatzea.
 - e) Bileren aktak bere sinaduraz berretsiko ditu, bidaltzeko agindua emango du baita betetzeko ere.



f) Kontseilu Osoaren izenean, instituzio, erakunde, entitate, elkarte, agintari eta bestelakoengana ere jotzea.

14. artikulua.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko Presidenteordea

1.– Kontseilu Osoaren presidenteordetza Gizarte-Ekintzarako Batzorde Informatzailearen presidenteordeari dagokio.

2.– Presidentea gaixorik balego edo parte-hartzerik ez baleuka, presidenteordeak bere gain hartuko lituzke haren eskumenak.

15. artikulua.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko Idazkaria

1.– Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzan dagoenak Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko eta Kontseilu Osoko idazkaritza hartuko du bere kargu.

2.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko idazkariak eskuduntzok izango ditu:

a) Presidentearen aginduz, bilera-deiak deitzea.

b) Kontseilu Osoko kideei gai-ordenako kontuei dagozkien agiriak eskuragarri jartzea.

c) Kontseiluko bilkuretara joatea eta aktak jasotzea. Halaber, erabakiei dagokien prozeduraz ere arduratu behar izatea.

d) Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluari kideek zein beste batzuek aurkeztu nahi izango duten gai, txosten, proposamen edo agiri oro hartzea, txukuntzea eta prestatzea eta eginbeharreko izapidetzaz ere arduratzea.

e) Jakinarazi Kontseiluak sortzen duen edota darabilen informazioa behar diren pertsona edo erakundeei.

f) Presidenteak eskaturiko kudeaketa- eta koordinazio-lan oro edo bere karguari dagozkionak.

16.- artikulua.– Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren finantzaketa

Behar bezala bere zereginak betetze aldera, Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseilua finantzatuko da gizarte-zerbitzuen eskumena duen saileko aurrekontuekin.

17.- artikulua.- Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren funtzionamendua beteko da Administrazio Publikoen Kide Anitzeko Organoei buruzko Administrazio Prozedurako Legearen II. Tituluaren atalak dakartzan arauei jarraiki.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Lehen deialdian, Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren osaera baliozkotzat joko da bere kontseilukide guztiak daudelarik eta bigarren deialdian, kontseilukide guztien erdia eta kide bat gehiago dagoelarik.

Bigarrena.- Ordeztagaitasuna dela eta, Kontseilukideen izendapenari buruzko erabakiak Alkateak berak onetsiko ditu Gizarte Zerbitzuen Kontseilua osatu arte, behar izanez gero, ezarritako prozedurari jarraiki. Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren osaketaz geroztik, ordea, erabaki haiek Presidenteak berak onetsi beharko ditu.

Hirugarrena.- Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren ordeztagaitasun orekatua, hots, gizon eta andreen artekoa, sustatu egingo da 4/ 2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, dioenari jarraiki.



XEDAPEN IRAGANKORRA

Portugaleteko Gizarte Zerbitzuen Kontseiluak, beharrezkotzat jotzen duen unean, Barne Araudia idatzi ahal izango du zein Kontseilu Osoak onetsi beharko baitu.